



AZTERKOSTA 2016 lehiaketa

AZTERKOSTA lehiaketan parte hartzeko asmorik baduzue, irakur itzazue arretaz lehiaketaren oinarriak.

LEHIAKETAREN GAIA

Gai bakarra, "Gure kostaldea"

MODALITATEAK

- ▶ Marrazkia
- ▶ Argazki digitala

KATEGORIAK

- ▶ 1.Kategoria: 10 urte arte.
- ▶ 2.Kategoria: 11-15 urte bitartean.
- ▶ 3.Kategoria: 16 urte baino gehiago

LANAK AURKEZTEKO ARAUAK

Marrazkia

Marrazkiak edozein teknika erabiliz (argizaria, akuarela, koloretako arkatzak, ikatz ziria eta abar) egindakoak izan daitezke; neurriak, berriz, DIN A4 edo DIN A3koak izango dira. Pertsona bakoitzak marrazki bakarra aurkeztu dezake.

Argazkia

Jatorrizko argazkiek orijinalak izan beharko dute, gehienez urte bat baino gutxiko antzintasun dutenak eta beste lehiaketa batean saritu gabeak. Formatu digitalean aurkeztuko dira bakarrik, hau da CD-an, pendrive-an edo posta elektronikoa bidaliz (aztertu@euskadi.eus). **Pertsona bakoitzak argazki bakarra aurkeztu dezake.** CD baten argazki bat baino gehiago aurkeztuz gero, egileak behar den bezala identifikatu beharko ditu.



Bestalde, interesgarria litzateke irakasleek (ikastetxeetan) eta begiraleek (elkarte eta abarretan) euren taldeak lanak egitera eta aurkeztera bultzatzea. Hori dela eta, parte-hartzaile bakoitzak, norberaren izenean aurkeztuz aparte, AZTERKOSTA parte hartzen duen zentroaren izena aipatuko du.

Aurkezten diren lanetan behar bezala identifikatu beharko da AZTERKOSTA lehiaketako parte-hartzaile bakoitza.

- ▶ Izen-abizenak
- ▶ Sexua
- ▶ Ikastetxea edo elkarte
- ▶ Adina
- ▶ Telefonoa
- ▶ Helbide elektronikoa
- ▶ Ez dira kontuan hartuko ezarritako arauak betetzen ez dituzten lanak.

LANAK AURKEZTEKO AZKEN EGUNA

2016ko abenduaren 16a

LANAK AURKEZTEKO LEKUA

- ▶ Bilboko Ingurugela: Ondarroa 2. 48004 BILBAO
- ▶ Vitoria-Gasteizko Ingurugela: Baiona 56-58. 01010 VITORIA-GASTEIZ
- ▶ Donostia-San Sebastianeko Ingurugela: Basotxiki 5. 20015 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN
- ▶ Legazpiko Ingurugela: Brinkola auzoa z/g. 20220 LEGAZPI

Lanak eskura eman edo kartaz bidali daitezke.

SARIAK

Aurkeztutako lan guztiak Ingurugelako, Eusko Jaurlaritzako eta AZTERKOSTA koordinatzen duen taldeko kideek osatutako epaimahaiak balioetsiko ditu. Modalitateetako kategoria guztietako irabazleei sari bana emango zaie, baita saridunen ikastetxe edo elkarte edo erakundeei ere.



SARITUTAKO LANAK ARGITARATZEA

Saritutako lanak AZTERTU programaren web orrian argitaratuko dira, saritutako lanen bilduma edo galerian.

AURKEZTUTAKO LANAK ERABILTZEKO BAIMENA

Lehiaketara aurkeztutako lanak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren esku geratuko dira, eta lan horien kopiak egiteko eta zabaldu edo banatzeko baimena izango du, baita egoki deritzon komunikazio publikoko sistemaren bidez eta egoki deritzon helburuarekin lanak ezagutarazteko baimena ere. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eskuratzen dituen baimen horien iraupena 6 urtekoa izango da eta nonahi gauzatu ahal izango ditu. Hala, esaterako, AZTERTU programaren aurtengo edizioan nahiz hurrengoetan sor litekeen edozein materialetan (apaingarri edo osagarri) erabili ahalko ditu lanak, baita ezagutzera eman AZTERTU programaren web gunean ere. Bestalde, parte-hartzaileen irudia modu berdinean erabili ahal izango du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak. Lehiaketara lanak aurkeztu dituztenek, ordea, ez dute EAEko Administrazioak egin ditzakeen erabilera horiengatik guztiengatik diru-saririk jasotzeko eskubiderik izango.

LEGEZKO OHARRA

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babestekoak, ezarritakoari jarraiki, honako hau jakinarazi nahi dizugu: AZTERKOSTA lehiaketara aurkeztzen duzun lana saridun baldin bada, zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean gordeko dira.

Fitxategi horretan gordetako datuak helburu hauetarako baino ez dira erabiliko:

- ▶ zure lanak saria jasoko duela jakinarazteko.
- ▶ sariak banatzeko ekitaldira zu gonbidatu ahal izateko.
- ▶ dagokizun saria eman ahal izateko.
- ▶ zure lana ibialde aldizkarian lan sarituen bilduman argitaratzen dugunean, nork egina den adierazi ahal izateko; beti ere zuk datu horiek azaltzearen aurkako adierazpenik egiten ez baduzu.

Fitxategiaren arduraduna Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendaria da. Datuak eskuratzeko,



zuzentzeko, deuseztatzeko eta fitxategian agertzearen aurka egiteko eskubidea gauzatu nahi izanez gero, Sail horretako Zerbitzu Zuzendaritzara jo dezakezu: Donostia-San Sebastián 1, 2. solairua, Vitoria-Gasteiz 01010.